

OGI TXIGOR PRESTATZAILEA

KANALAK



Kanalak, enpresa bat bere bezeroekin komunikatzeko eta produktua bezeroei iristeko bide desberdinak dira. Komunikaziorako, salmentarako eta banaketarako kanalak bereizten dira.

Lehenengo, gure produktuak bezeroei helarazteko, banaketa kanala daukagu. Banaketa kanalaren barruan, bi mota desberdin bereizten dira, kanal propioa eta elkartutako kanalen bidezkoa. Guk, bi hauek nahastea erabaki dugu, alde batetik guk web orria sortuko dugu eta bertatik salduko ditugu geure produktua. Beste alde batetik beste denda batzuetan, gure produktua salgai izateko aukera egongo da.

Gure denda online denez, web orrialde bat sortu dugu eta gure bezeroek bertatik egin ditzakete beraien eskaerak, horrela guk DHL enpresaren bitartez bidaliko dizkiegu beraiei gure produktuak. Beste alde batetik, gure produktua gure baiarako denda batzuetan ere salduko dugunez, denda horiek banaketa zerbitzurik izango dute, hau da, nahiz eta dendan erosi etxeetan banatzeko aukera ere izango da.

Salmenta, internet bidez egitea erabaki dugu, aukerarik onena iruditzen zaigula. Online egitearen arrazoi nagusia, gure produktua mundu mailan zabaltzea dugula helburu eta beste herrialdeetako jendeak ere eskura izateko aukera izango duela. Interneteko web orriari esker, gure bezeroak gurekin jar daitezke kontaktuan bertan txertatuta agertuko den telefono zenbakia edo e-maila erabilita.

Gu ezagutzera eramateko modurik eraginkorrena internet bidez da. Beraz gure web orriko produktua googleko orri desberdinetan eta youtuben abestiak hasi baino lehen, albiste bezala txertatu dugu, ezagutzera eramateko. Bestalde, gaur egun erabiltzen diren sare sozial famatuenetara ere batuko gara, twitter, facebook eta instagram esate baterako. Azkenik, gure app-a sortuko dugu eta mugikorrean izateko aukera izango dute geure bezeroek.